



## Pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua Koaderno praktikoak

### 10. Eguneroko bizitza

Gainerakoekiko harremanak

Proiektuaren egileak:



**MATIA**  
FUNDAZIOA



# Pertsonarengan Oinarritutako Arreta

## Koaderno praktikoak

### **Idazkuntza-taldea**

Teresa Martínez, Pura Díaz-Veiga,  
Mayte Sancho eta Pilar Rodríguez

### **Diseinua eta maketazioa**

Imago Soluciones de Comunicación

“Pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua” koaderno praktikoen sorta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Matia Institituaren ekimena da

%100 paper birziklatua eta klororik gabekoa



## ZERI BURUZKOA DA DOKUMENTU HAU?

Gizarte-harremana osasun-iturri da, gero eta nabaritasun zientifiko handiagoa dago.

Jakina denez, familia da lehenengoa, baina lagunek, auzokoek eta ezagunek ere gure bizitza hobetzen lagun diezagukete. Funtsezkoa da jakitea nola zaindu behar ditugun gure lagunak, eta irekita egon behar dugu harreman berrietara.

Dokumentu honek ideia horiek azpimarratzen ditu, **adinekoek gainerakoekin harremanak izateak duen garrantzia, alegia, eta adinekoen gizarte-bizitza aberasteko eta babesteko estrategia eta gako batzuk eskaintzen ditu.** Baita mendetasun-egoeran daudenena eta zainketak behar dituztenen kasuan ere.

Gainerakoekiko  
harremanak

1. Familiak, gure aliatuak.
2. Lagunak eta kontaktuak izaten jarraitzea.
3. Harreman berriak, zergatik ez?
4. Harreman intimoak.
5. Elkarrekin bizi.

*Honako hauentzat pentsatuta dago: Zerbitzuetako arduradun eta kudeatzaileentzat, Zentroetako zuzendarientzat, Teknikarientzat eta Zuzeneko arretako profesionalentzat.*

## 1. FAMILIAK, GURE ALIATUAK

### Familiak axola du

Adineko gehienentzat, familiak dira **babes-iturri nagusiak**. Bestalde, senideen harremana eta ongizatea da **gehien kezkatzen dituzten gaietako bat**.

Hori dela-eta, arreta-eredu honetan **familiek axola dute**, benetan axola ere! Hortaz, **familiek arretan parte har dezaten bilatzen eta bultzatzen dugu**. Ez dugu pentsatu behar arreta “profesionalen kontua” denik.

**Adinekoa etxean dagoenean**, familia babes erabakigarria da etxean jarraitzeko. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuetako profesionalek familiari ere laguntzen diote, eta batzuk zein besteak talde bereko kideak dira.

**Pertsona eguneko zentro batera joaten denean edo egoitza batean bizi denean**, zainketa koordinatuak bideratu behar ditugu. Familiek ere jarrai dezakete pertsona zaintzen, profesionalekin lankidetzan.

**Familien parte-hartzearen bideratzaile** izan behar dugu. Familiak arretan inplikatzeko, jarrera egokia agertu beharko dugu haietan, eta komunikazio positiboa bideratzen jakin beharko dugu.

## FAMILIEN PARTE-HARTZEA BIDERATZEA

- Familiekiko harremana bideratzea; edonola ere, familiek ez dute sentitu behar epaitzen edo gaitzesten dituztenik.
- Adinekoak onartzen badu, familiek arretan parte hartzeko aukera ematea:
  - Eguneroko zainketetan parte hartuz (janaria, garbitasuna eta abar).
  - Arreta- eta bizitza-planaren diseinuan eta garapenean parte hartuz; adibidez, babes- eta adostasun-talde batean parte har dezakete.
- Harremanetan zailtasunak daudenean, orientatzea eta bitarteko-lanak egitea, betiere zuhur jokatuta.
- Familiekin maiz komunikatuko den erreferentiazko profesional bat izatea.

### Zentroetan

- Familiei babesia ematea pertsona zentro batean sartzen denean. Oso une zaila izaten da, eta erru-sentimendua, segurtasunik eza edota anai-arreben arteko tirabirak agertzen dira hartutako erabakiaren aurrean.
- Egiten diren jardueretan parte hartzera gonbidatzea.
- Parte hartzeko bideak izatea (familia-elkarte edo antzeko bat).
- Egun osoan bisitak hartzeko aukera izatea (jarduera jakin batzuen pribatutasuna eta bisitarik nahi ez dutenen erabakia errespetatuz).
- Senideei otorduak adinekoarekin egiteko eta gaua zentroan emateko aukera erraztea.
- Bisita pribatuak hartzeko lekuak izatea.

## Familia, autodeterminaziorako babes

Familiaren garrantzia aitortuta ere, **familiak ez du pertsonak erabakitzeko duen esparruan sartu behar**. Aitzitik, **pertsonaren autonomia eta independentzia garatzeko babes** izan behar du familiak, eta hori lortu behar dugu.

Beharrezkotzat hartzen denean, **pertsonak bere bizitza kontrolatzea** komeni dela ikusarazi behar zaie senideei. Horrek ongizatea sortzen duela eta bizi-kalitatea hobetzen duela azaldu behar zaie. Eta **familiak**, profesionalekin batera, hori lortzeko **ezinbesteko zutabe** direla ere bai.

**...Eta pertsonak narriadura kognitibo handia duenean, haien eginkizuna pertsona ordezkatzea dela** helarazi behar diegu. Pertsonak hartuko zituen erabakiak hartzea. Haren lekuaren jartzeari, eta haren bizi-balioak eta lehentasunak kontuan hartuta erabakitzeari. Ez da erraza. Horregatik, zeregin horretan orientatu behar ditugu familiak. Entzun egin behar diegu, eta gure iritzia helarazi behar diegu.

## Harremanak korapilatzen direnean

Zenbaitetan, adinekoaren eta familiaren arteko harremanak ez dira errazak izaten. Kasu batzuetan, espero zenaren inguruko **aurreikuspenak** zuzenak ez zirelako gertatzen da. Beste batzuetan, berriz, **harremana lehendik ere korapilatsua** zelako. Izen ere, pertsonen historia, afektuak eta harremanak bizitza osoan eraikitzen edo hondatzen dira.

**Entzutea, bideratzea eta, ahal den heinean, bitarteko-lanak egitea** da gure zeregina. Epaitu gabe, inoren alde jarri gabe eta errudunk bilatu gabe. Batzuen eta besteen erreakzioak ulertzeari.

saiatu behar dugu, eta, ahal bada, elkartzeko aukerak eskaini. Hori ezinezkoa bada, batzuei zein besteei haserrea eragiten dieten erreakzioak saihestu beharko ditugu.

### FAMILIAREKIKO HARREMANAK BIDERATZEKO JARRAIBIDE BATZUK

- Adinekoaren eta familiaren arteko harremana sustatzea, betiere horrek bestelako okerrik eragiten ez badu eta pertsonarentzat kaltegarria ez bada.
- Adinekoek senideen inguruan adierazten dituzten kexak ez areagotzea. Entzutea eta ikuspegi praktiko eta positibo batetik orientatzea.
- Adinekoak eta familiak elkarrekin egiteko jarduerak bilatzea, zentroaren barruan zein kanpoan une atseginak izan ditzaten. Horretarako babesa ematea.
- Adinekoaren eta haren familiaren arteko harremanetan zaitasunak daudenean, bitarteko-lanak egitea, aurreikuspenak moldatzea eta elkar uler dezaten saiatzea.
- Familiaren presentzia eta laguntza sustatzea, betiere haren erritmoa, erabakia eta implikazio-maila errespetatuta.
- Familia gogaitaraz dezakeen informazio jakin bat eman behar denean, unerik eta lekurik egokiena eta hobekien helaraziko duen profesionala bilatzea.



*“Manuel oso zorrotza da guztiarekin. Alfredo semearekin bereziki gogorra da. Bisitan etortzen denean, gauzak aurpegiratzen dizkio behin eta berriz: berandu iritsi dela, aitaz kezkatzen ez dela eta abar. Alfredok aitaren antzeko izaera du, eta ez da isilik geratzen.*

*Semea ez dagoenean ere kritikatzen du Manuelek. Guk entzun egiten diogu, baina ez dugu “sua piztu” nahi izaten. Semeak harengandik egiten duena balioets dezan eta semearen lekuaren jar dadin saiatzen gara. Marian psikologoa biekin lan egiten ari da. Biek elkarrekin parte hartzeko eta ongi pasatzeko moduko jarduera baten bila gabiltza. Joan den egunean, Manuelekin nengoela, semearekin sesioan ez aritzeko gai bakarra futbola zela esan zidan. Ideia ona izan daiteke!”.*

### **Puri (Manuelen erreferentziazko laguntzailea)**



## 2. LAGUNAK ETA KONTAKTUAK IZATEN JARRAITZEA

Lagun bat duenak altxor bat gordetzen duela diote. Lagunak izaten jarraitzeak **hobeto sentitzen laguntzen dio pertsonari.**

Urte asko ditugunean, **maite ditugun pertsonak galtzen ditugu.** Adinekoei atsekaberik handiena sorrarazten dien gauzetako bat da hori. Kasu horietan, garrantzitsua da enpatiaz entzutea, iragana gogora ekartzeko denbora emanez, eta pertsona falta bada ere oroitzapen onek gurekin jarraitzen dutela ikusaraziz. Nolanahi ere, beste pertsona batzuk ezagutzen eta, beharbada, lagun berriak egitera ere animatu behar ditugu, eta horretan lagundu behar diegu.

Bitztaren parte diren harremanei eutsi behar zaie (lagunak eta hurbilekoak). Adibidez, auzokoekin edo ezagunekin harremanetan jarraituz gero, **bitztak aurrera jarraitzen duela eta munduari lotuta jarraitzen duela** sentitzen du pertsonak.



Pertsonek beren gizarte-harremanik esanguratsuenekin jarraitzeaz kezkatzen bagara, pertsonak **maitatuago eta “biziago” sentitzea** lortuko dugu.

### PERTSONEI BEREN GIZARTE HARREMANEI EUSTEN LAGUNTZEA

- Lagunekin eta ezagunekin harremanetan egotera animatzea, eta, horretarako, hainbat baliabide erabiltzea (telefona, posta, Internet eta abar).
- Eguneroko bizitzan zenbait harremani berriz ekiteko dauden aukerak baliatzea.
- Lagunei bisita egiteko eta garai bateko ohiko lekuetara joateko (zentro soziala, kafetegiak, parkeak eta abar) laguntza ematea.
- Zentro batean bizi badira, lagunak eta ezagunak joateko eta pertsonak non eta nola bizi diren ikusteko aukera bideratzea. Zentroan hartzea, eta ahaleginak egitea erosoa eta etxean bezalaxe senti daitezzen.
- Zentro batean, pertsonen arteko kidetasun-zeinuei adi egotea, eta elkarrekin egoteko aukerak bilatzea. Harreman afektibo berri bat sor daiteke.
- Pertsonen erritmoak eta ezezkoak errespetatzea. Une batzuk besteekin egoteko izaten dira, eta, beste batzuetan, nahiago izaten da bakarrik egon.

*“Kalera irtetea eta lagunekin kafea hartzea atsegin dut; Manuel kioskokoa eta auzoko ezagunak agurtzea ere bai. Ostegunetan, Tomás boluntarioak laguntzen dit, eta gero nire bila etortzen da. Bizi poza ematen dit horrek”.*

**Asunción (74 urte)**



### 3. HARREMAN BERRIAK, ZERGATIK EZ?

Zainketak behar izateak ez du esan nahi harreman berriei uko egin behar zaienik. Adineko askok egiten dituzte lagun berriak. Batzuk maitemindu ere egiten dira, eta bikotekidea aurkitzen dute. Zergatik ez?

Hala ere, adinekoak **mendetasuna** badu, **are handiagoa da isolatuta egoteko arriskua**. Etxean nahiz zentroan bizi.

Horregatik, garrantzitsua da **harreman berriak bultzatzea eta babestea**.

**Zentro sozialetara edo kultura-zentroetara** joatea edo horietan bazkide egitea aukera ona da, bertan, gauza berriak ikasteaz gain, beste pertsona batzuk ezagutzen baitituzte. **Baliabiderik hurbilenei buruzko informazioa eman behar diegu pertsonei**. Eta animatu egin behar ditugu,

zenbaitetan ez baita erraza izaten ohikeriari aurre egitea.

Zenbaitetan, adinekoak baino ez dira joaten zentro horietara. **Antzeko adina eta inguruabarrak dituzten pertsonekin harremanak izatea** gauza ona da, **bizipen eta kezka komunez hitz egiteko** aukera ematen baitu.

Baina, era berean, garrantzitsua da **aukerak zabaltzea**. “Zooma” irekitzea eta **adin desberdina duten edo inguruabar desberdinak bizi dituzten pertsonekiko** harremana bultzatzea.

Gazteek, haurrek, elkarEEK edota gizarteratzeko zailtasunak dituzten taldeek (etorkinek, presoek, desgaituek eta abar) **begirada osagarri bat** ematen diote **bizitzari**. Bizipenak elkartrukatzeko eta espero izan gabe batu egiten gaituzten gauzak aurkitzeko aukera ematen duten uneak izaten dira.

Horrelako topaketak baliatuta, hainbat **gaitasun pertsonal** garatzeko eta **lagun berriak** egiteko **jarduera handiak antola** daitezke.

#### BESTE TALDE BATZUEKIN EGITEN DIREN JARDUERAK

- Errealitate berrien elkarrekiko ezagutza eta, horren bidez, hazkuntza pertsonala errazten dute.
- Bizipenak elkartrukatzeko aukera errazten dute.
- Estereotipoei aurka egiten eta beldurrak desagerrazten laguntzen dute.
- Harremanen eta babesen zirkulua zabaltzen laguntzen dute.
- Adinekoen irudi erreala erakusten diote komunitateari.
- Baliabide eta gaitasun pertsonalen garapena bultzatzen dute.

#### 4. HARREMAN INTIMOAK

Beharrezkoa zaigu **afektua adieraztea eta jasotzea**. Halaber, **sexu-premiak** ditugu. Premia horiek beste intentsitate batez agertzen dira zahartzen garenean, baina dimentsio hori gizakiaren parte da bizitza osoan.

Adinekoen sexualitatea gai tabua da, ez da horretaz hitz egiten. Oraindik bada pentsatzen duena desirak eta premiek ez dutela lekuriak adin horietan, ez direla normalak.

Horrek ez du oinarririk. Sexu-desira ez da desagertzen, sexu-erantzuna eta sexu-harremanak desberdinak izan badaitezke ere.

Lehenik eta behin, adinekoen artean **harreman intimoak izateko premia normala eta osasungarria dela ulertu behar da**. Eta, ondoren, **babesa eskaini**, adinekoek beren afektuak



eta sexualitatea bete-betean, beren erritmoan eta beren moduan bizi ditzaten.

### PREMIA AFEKTIBO-SEXUALAK EZAGUTZEA ETA ERRESPETATZEA

- Gai horiek normalizatzea, gai horietan sentsibilizatu eta prestatzea, eta guztiak (adinekoen, familien eta profesionalen) tolerantzia handiagoa lortzea.
- Pertsonek harreman intimoak izateko gune fisikoak izatea.
- Pertsonen harreman afektiboen inguruko diskrencia eta konfidentzialtasuna gordetzea.
- Errespetuari eustea. Pertsonak gaizki senti ez daitezen edo barregarri gera ez daitezen saiatzea.
- Sexu-orientazio desberdinak errespetatzea eta normalizatzea.
- Babesik gabeko pertsonak beste batzuen abusuaz babestea, narriadura kognitibo larria duten pertsonak bereziki.

Tentuz hartzeko gai bat: **narriadura kognitiboa duten pertsonen sexualitatea**.

Dementzia bat izateak **ez du esan nahi sexuari uko egin behar zaionik**. Baino, jakina, pertsonaren askatasunetik eta onarpenetik abiatuta.

**Pertsona babestu** behar dugu, abusuei aurrea hartu behar diegu, baina **segurtasuna eta ongizatea ematen dioten harremanak eta babesak ukatu gabe**.

Hori dela-eta, **kontu handiz balioetsi behar dugu pertsona bakoitza eta haren egoera**.

### ABUSUARI AURRE EGITEA, PERTSONARENTZAT ONENA BILATZEA

- Pertsonak harreman afektibo-sozialak onartzeko duen gaitasuna balioestea.
- Harremanak pertsonarengan ongizatea ala atsekabea sortzen duen behatzea.
- Pertsonaren biografia eta bizi-balioak ezagutzea, harreman afektibo eta intimoei dagokienez.
- Beste pertsonarekiko harremana nolakoa den balioestea. Ez da gauza bera aspalditik elkarrekin dagoen bikote bat eta bikote berri bat. Harremanak pertsonari egiten dion ekarpena eta onura, eta tratua bera balioetsi behar dira.
- Bikotea babestea. Maite duen pertsona narriatzen ari dela ikustea oso gogorra izaten da bestearentzat.
- Pertsonaren familia kontuan hartzea. Harentzat onena zer den elkarrekin pentsatzea.
- Muturreko erabakirik ez hartzea. Neurri zuhurak eta bitartekoak izan ohi dira onenak.
- Abusu-egoerei aurrea hartzea. Pertsona babestea.
- Eta zalantzak izanez gero, etika asistentzialeko batzorde bat konsulta egitea.

*“Lola eta Ramón elkarrekin ibiltzen dira duela urte batzuez geroztik. Lolak orduan bazituen oroimen-hutsune batzuk, baina ongi samar moldatzen zen. Haren dementziak aurrera egin duenetik, Victoria alabarekin bizi da. Ramónek Lolarekin jarraitzen du, eta, Victoriak dioenez, ez diezaiola hutsik egin Ramónek! Elkar maite dute, gustura daude, nabarmena da! Eta Ramón gai da Lolari zer gertatzen zaion ulertzeko. Esaten*

*duenez, ezkonduta ez badaude ere, Lola da bere bizitzako emakumea. Victoriak ulertzen du, eta batzuetan bakarrik uzten ditu etxean, elkarrekin goza dezaten”.*

### Milagros, udaleko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langilea

## 5. ELKARREKIN BIZI

**Harreman atseginak sustatzea beharrezkoa eta positiboa da denontzat.** Beste batzuekin bizi garen lekuaren giro atsegina, alaia, tirabirarik gabe eta komunikazio onarekin lortzea **ongizatea eta osasuna sortzea da.** Denontzat.



**Adinekoak** arreta eta zainketak behar dituenean eta horregatik **etxean seme-alabekin edo familiako beste kide batzuekin bizi denean**, zaitasun batzuk sorraz ditzake. Familiako kide bat zaintzeko, familia-taldearen ohiko bizimodua aldatu behar da, eta egokitu beharra dago. Etxera joaten diren edo eguneko zentroan dauden profesionalek zeregin garrantzitsua bete dezakete entzuten eta aholkuak ematen.

#### FAMILIA TALDEAREN ETXEKO ELKARBIZITZAERRAZTEA

- Adinekoak behar duenaren eta harekin bizi diren pertsonek behar dutenaren arteko oreka bilatzea.
- Zaintzaile nagusiari babes berezia ematea. Hari entzutea, eta ongi zaintzeko ongi egon behar duela eta bere burua zaindu behar duela konturatzen laguntzea.
- Elkarrekin gauzak egiteko eta ongi pasatzeko aukerak eta ideiak aurkitzen laguntzea. Ongi pasatzea eta barre egitea oso lagungarria da elkarrekin hobeto bizitzeko.
- Adinekoaren senideren batekin bizitzera joateko aukera balioesten ari badira, garrantzitsua da erabakia hartu aurretik zaintza-alternatiba guztien abantailak eta eragozpenak kontuan hartzea, elkarrekin bizi zeak guztiotzat zer aldaketak dakartzan jakitea, akordioak lortzea eta aurreikuspenak egokitzea.
- Jakitea noiz den ezinezkoa etxean jarraitzea. Kasu horretan, aukerarik onena bilatzea. Informazioa biltzea, eta adinekoaren premia eta lehentasunetara egokitzen diren zentroak eta alternatibak ezagutzea.

Zentroetan (egunekoetan zein egoitzetan), elkar ezagutzen ez duten pertsona desberdinak bizi dira elkarrekin. Elkarbitzitza zaintzea eta **errespetuzko giro atsegin eta bero bat lortzea** funtsezkoa da denok eroso senti gaitezen.

### ZENTRO BATEAN ELKARBIZITZARI MESEDE EGITEN DIONA

- Beharrezkoak diren arauak. Arau asko izateak ez du elkarrekin hobeto biritzen laguntzen.
- Adinekoen, familien eta profesionalen parte-hartzean eta adostasunean oinarritutako elkarbizitza-arauak.
- “Etxeko” giroa. Komeni da zentroan “etxe-sentsazioa” sortzea, etxe batean bezala funtzionatzea.
- Pertsonek zer egin eta non eta norekin egon erabakitzeko duten gaitasuna. Behartutako elkarbizzitak ez du emaitza onik ematen.
- Erabilera pribatuko esparruen, eta esparru partekatuen eta taldeko jardueren arteko konbinazioa.
- Onartu diren eta elkarbizitza hobea izateko aukera berriak emango dituzten aldaketa batzuk (logelaren aldaketa, bizikidetza-taldearena, jantokiko lekuaren eta abar).
- Zaletasun komunak direla medio pertsonak elkartzen dituzten jarduerak.
- Zentroan bizi ez diren edo zentrora egunero joaten ez diren pertsonen presentzia eta horiekiko harremana (familiak, lagunak, auzokoak, beste profesional batzuk, gazteak eta haurrak). Komeni da bizitasuna egotea, leku “itxia” ez izatea. Beti aurpegi berak ikusi behar izatearen sentsazioa saihestu behar da.
- Profesionalen jarrera adeitsua, atsegina, positiboa eta lasaia. Nagusiki profesionalek ezartzen dute zentro bateko giroa.
- Umorea sortzen den unea. Elkarrekin barre egiteak konplizitatea sortzen du. Pertsonak batzen ditu.



*“Elkarbizitza-arauak berrikusi genituen. Horretarako, eztabaidea-taldeak egin genituen, eta adinekoek, familia batzuek eta profesionalek hartu zuten parte. “Gure lagunen laguna izango zen zentroa” nahi genuen. Orain arau gutxiago ditugu: benetan garrantzitsuak eta denon artean erabaki ditugunak. Kendu dugun arauetako bat bisitaldien ordutegiari buruzkoa izan da”.*

**Joaquín (egoitzako zuzendaria)**

## GEHIAGO JAKITEKO

- **GUISET, M.J. (2008).** “**Cuidados y apoyo a personas con demencia: nuevo escenario”.** Boletín sobre envejecimiento Perfiles y tendencias, 34 (iraila). Madrid: IMSERSO.  
<http://www.imserso.es/InterPresent2/groups/imserso/documents/binario/boletinopm34.pdf>
- **MARTÍNEZ, T. (2011).** “**Pertsonarengan oinarritutako arreta gerontologikoa”.** Gasteiz: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.  
[http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contss/es/contenidos/informacion/publicaciones\\_ss/es\\_publica/adjuntos/Atencion%20Gerontologica.pdf](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contss/es/contenidos/informacion/publicaciones_ss/es_publica/adjuntos/Atencion%20Gerontologica.pdf)
- **HAINBAT EGILE (2009).** “**Guías de Buenas Prácticas en Centros de atención a personas mayores en situación de dependencia”.** Oviedo: Asturiasko Printzerriko Gizarte Ongizate eta Etxebitzitza Saila.  
[http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF\\_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/1.2\\_Residencias%20Mayores-Parte%20II.pdf](http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/1.2_Residencias%20Mayores-Parte%20II.pdf)  
[http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF\\_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/2.2\\_Centros%20dia-Parte%20II.pdf](http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/2.2_Centros%20dia-Parte%20II.pdf)
- **HAINBAT EGILE (2010).** “**Mujeres, las oportunidades de la edad”.** Madrid: IMSERSO.  
<http://www.acpgerontologia.com/documentacion/lasoportunidadesdelaedad.pdf>
- **HAINBAT EGILE.** “**Saber envejecer, prevenir la dependencia”.** SEGG eta Caja Madrid, Gizarte Ekintza. Madrid: Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartea (Sociedad Española de Geriatría y Gerontología) eta Caja Madrid, Gizarte Ekintza.  
[http://www.obrasocialcajamadrid.es/es/accion\\_social/atencion\\_a\\_mayores/saber\\_envejecer\\_prevenir\\_la\\_dependencia/documentacion.html](http://www.obrasocialcajamadrid.es/es/accion_social/atencion_a_mayores/saber_envejecer_prevenir_la_dependencia/documentacion.html)



## Pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua

### Koaderno praktikoak

1. Pertsonarengan oinarritutako arreta. Zertan datza arreta-eredu hau?
2. Pertsonarengan oinarritutako arreta. Nola gauzatu?
3. Nola eta non nahi dut ni zaintzea? Pertsonarengan oinarritutako arreta, arreta-eredu berria
4. Profesionalak. Eginkizun berriak eta arreta-taldeak
5. Zentroetako erreferentziazko profesionala
6. Laguntza behar duten pertsonentzako bizikidetza-unitateak
7. Pertsona ezagutzea eta haren autodeterminazioa babestea. Arreta eta biziiza plana
8. Pertsona ezagutzea eta haren autodeterminazioa babestea. Babes- eta adostasun-taldea
9. Eguneroko biziiza. Jarduerak egitea
10. Eguneroko biziiza. Gainerakoekiko harremanak
11. Eguneroko biziiza. Zainketa pertsonalak



# Modelo de atención centrada en la persona

## Cuadernos prácticos

### 10. Vida cotidiana

Las relaciones con los demás

Un proyecto de:



ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

**MATIA**  
FUNDAZIOA



# Atención Centrada Persona

## Cuadernos prácticos

### **Equipo de redacción**

Teresa Martínez, Pura Díaz-Veiga,  
Mayte Sancho y Pilar Rodríguez

### **Diseño y maquetación**

Imago Soluciones de Comunicación

La serie de cuadernos prácticos “Modelo de atención centrada en la persona” es una iniciativa del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco y Matia Instituto

Papel 100% reciclado y libre de cloro



## ¿DE QUÉ TRATA ESTE DOCUMENTO?

Cada vez, tenemos mayor evidencia científica de que la **relación social es una fuente de salud.**

Ya se sabe, la familia es lo primero, pero las amistades, la vecindad, las personas conocidas del barrio... también pueden mejorar nuestra vida. Es fundamental saber cómo cuidar nuestras amistades, además de estar abiertos a nuevas relaciones.

Este documento insiste en estas ideas, en **la importancia de que las personas mayores mantengan relaciones con las demás personas, y ofrece algunas estrategias y claves sobre cómo enriquecer y apoyar su vida social.** También cuando tienen una situación de dependencia y necesitan cuidados.

Relaciones con las demás personas

- 1. Las familias, nuestras aliadas.
- 2. Mantener amistades y contactos.
- 3. Nuevas relaciones ¿por qué no?
- 4. Relaciones íntimas.
- 5. Convivir.

*Pensando en... Responsables y gestores/as de servicios, Directores/as de centros, Técnicos/as, Profesionales de atención directa.*

## 1. LAS FAMILIAS, NUESTRAS ALIADAS

### La familia sí importa

Las familias son, para la mayoría de las personas mayores, **su principal fuente de apoyo**. Por otro lado, la relación y el bienestar de sus familiares es **uno de los asuntos que más les preocupan y afectan**.

Por ello, desde este modelo de atención, **las familias sí importan... ¡y mucho!** Y de este modo, **buscamos y favorecemos su participación en la atención**. No podemos pensar que ésta “es sólo cosa de los/as profesionales”.

**Cuando la persona mayor está en casa**, su familia es un apoyo decisivo para la permanencia en el hogar. Los/as profesionales de los servicios de ayuda a domicilio, con la familia, forman parte del mismo equipo y además también apoyan a ésta.

**Cuando la persona acude a un centro de día o vive en una residencia**, hemos de favorecer los cuidados coordinados. Las familias también pueden seguir cuidándola, en colaboración con los/as profesionales.

Tenemos que ser **facilitadores/as de la participación de las familias**. Su implicación en el cuidado dependerá, en gran parte, de nuestra actitud hacia ellas y de cómo sepamos mantener una comunicación positiva.

## FAVORECER LA PARTICIPACIÓN DE LAS FAMILIAS

- Facilitar la relación con las familias, evitando que éstas se sientan juzgadas o reprimidas.
- Siempre que la persona mayor lo acepte, posibilitar que tomen parte en la atención:
  - Participando en los cuidados cotidianos (dar comida, aseo, etc.).
  - Participando en el diseño y desarrollo del plan de atención y vida; por ejemplo, formando parte de un grupo de apoyo y consenso.
- Orientar y mediar, desde la prudencia, cuando existen dificultades en la relación.
- Tener un/a profesional de referencia que mantenga con las familias una comunicación fluida.

### En los centros

- Apoyar a las familias cuando la persona ingresa en un centro. Es un momento muy difícil, en el que afloran sentimientos de culpa, de inseguridad o, incluso, tensiones entre hermanos/as, ante la decisión tomada.
- Invitarles a participar en las actividades que se desarrolle.
- Contar con cauces donde participar (una asociación de familias o similar).
- Tener la posibilidad de recibir visitas a lo largo de todo el día (respetando la privacidad de ciertas actividades y la decisión de quienes no deseen algunas visitas).
- Facilitar que las personas familiares puedan compartir comidas o, incluso, pasar la noche acompañando a la persona.
- Tener lugares para recibir visitas en privado.

## Las familias como apoyo a la autodeterminación

Reconociendo la importancia de las familias, hemos de intentar **que éstas no ocupen el espacio de decisión de la propia persona**. Al contrario, debemos lograr que sean **un apoyo para el desarrollo de su autonomía e independencia**.

Cuando se considere necesario, deberemos ser capaces de hacerles ver la conveniencia de que **la persona controle su vida**. Mostrando que esto genera bienestar y aumenta su calidad de vida. Y que las **familias son un pilar imprescindible** para lograrlo junto con nosotros/as, los/as profesionales.

**...Y cuando la persona tenga un deterioro cognitivo importante**, hemos de transmitirles que **su misión es representarla**. Tomar las decisiones que ella hubiera tomado. Poniéndose en su lugar y decidiendo desde sus valores de vida y preferencias. No es sencillo. Por esto, deberemos orientar a las familias en esta labor, escuchándolas y compartiendo nuestras observaciones.

## Cuando las relaciones se complican

En ocasiones, las relaciones entre la persona mayor y su familia no son fáciles. A veces, por **falta de ajuste de expectativas** sobre lo que se esperaba. Otras veces, porque ya **existía una relación compleja...** y es que la historia de las personas, sus afectos y relaciones, se construyen o se deterioran a lo largo de toda una vida.

Nuestro papel es **escuchar, facilitar, y en la medida de lo posible, mediar**. Sin juzgar, sin tomar partido ni buscar culpables. Se trata de entender las reacciones de unos/as y otros/as y, si

es posible, ofrecer oportunidades de encuentro y, si no, evitar aquéllas que generen malestar a cualquiera de las dos partes.

### ALGUNAS PAUTAS PARA FACILITAR LAS RELACIONES CON LA FAMILIA

- Estimular el contacto, entre la persona mayor y su familia, siempre que esto no sea contraproducente o haga daño a la persona.
- No alimentar los reproches de las personas mayores hacia sus familias. Escuchar, orientar con un enfoque práctico y positivo.
- Buscar actividades conjuntas, entre la persona mayor y la familia, que faciliten encuentros agradables dentro y fuera del centro. Darles apoyos para ello.
- Mediar en las dificultades en la relación entre la persona mayor y su familia, ajustando expectativas y procurando que se comprendan.
- Estimular la presencia y colaboración familiar, respetando su ritmo, su decisión y su grado de implicación.
- Cuando haya que dar cierta información, que pueda incomodar a las familias, buscar el momento y lugar más adecuado, así como el/la profesional que mejor pueda transmitirla.



*“Manuel es muy exigente con todo. Es especialmente duro con su hijo Alfredo. Cuando viene a visitarle, no para de echarle en cara cosas: que si ha tardado en venir, que no se preocupa por su padre... Alfredo, en carácter, se parece a su padre y no se queda callado...”*

*Manuel también le critica cuando no está. Nosotros le escuchamos, pero evitamos “echar leña al fuego”. Intentamos que valore lo que su hijo hace por él y que se ponga en su lugar. Marian, la psicóloga, está trabajando con ambos. Hemos pensando en buscar una actividad en la que los dos puedan participar juntos y pasarlo bien. Hablando el otro día con Manuel, me dijo que lo único que no le hacía discutir con su hijo es el futbol... ¡puede ser una idea!”.*

**Puri (auxiliar de referencia de Manuel)**



## 2. MANTENER AMISTADES Y CONTACTOS

Dicen que quien tiene un amigo... ¡guarda un tesoro! Mantener las amistades **ayuda a la persona mayor a sentirse mejor**.

Cuando tenemos muchos años **se van perdiendo personas queridas**. Ésta es una de las cosas que a las personas mayores les produce mayor pesar. Entonces es importante escuchar, desde la empatía, dejando tiempo a la evocación y haciendo ver que los buenos recuerdos nos siguen acompañando, aunque la persona falte. Pero también hemos de animarles y apoyarles para que puedan conocer a otras personas y quizás... ¡conseguir nuevas amistades!

Conservar las relaciones que han formado parte de su vida, de amistad o de cercanía, como, por ejemplo, el contacto con la vecindad o personas conocidas, hace que la persona sienta que **la vida sigue, que sigue conectada al mundo**.



Si nos preocupamos de que las personas preserven sus relaciones sociales más significativas, lograremos que **se sientan más queridas y más “vivas”**.

### CÓMO AYUDAR A QUE LAS PERSONAS MANTENGAN SUS RELACIONES SOCIALES

- Animarles a mantener contacto con las amistades y personas conocidas, utilizando medios diversos (teléfono, carta, Internet...).
- Aprovechar oportunidades cotidianas para que retomen algunos contactos.
- Dar apoyos para que puedan visitar a sus amistades, acudan a lugares que solían frecuentar (centro social, cafeterías, parques...).
- Si viven en un centro, facilitar que amistades y personas conocidas acudan y conozcan dónde y cómo viven las personas. Acogerlas, hacer todo lo posible para que se sientan cómodas, como en casa.
- Atender a los signos de afinidad entre personas cuando están en un centro y buscar ocasiones para que estén juntas. De ahí, puede surgir una nueva relación afectiva.
- Respetar los ritmos y negativas de las personas. Hay momentos para los/as demás..., y en ocasiones, se prefiere estar solo/a.

*“Me gusta salir a dar una vuelta y luego tomarme el café con mis amigas; saludar a Manuel, el del quiosco, y a mis conocidos del barrio. Los jueves, Tomás, el voluntario, me acompaña y luego me viene a buscar. Esto me da vida”.*

**Asunción (74 años)**



### 3. NUEVAS RELACIONES, ¿POR QUÉ NO?

**Necesitar cuidados no implica renunciar a nuevas relaciones.** Muchas personas mayores hacen nuevas amistades. Incluso, algunas encuentran pareja y se enamoran ¿por qué no?

Sin embargo, cuando la persona mayor se encuentra en **situación de dependencia, aumenta el riesgo de aislamiento.** Tanto si vive en casa como en un centro.

Por eso es importante **animar y apoyar los nuevos contactos.**

Asociarse o acudir a **centros sociales o culturales** donde, además de aprender cosas nuevas se conocen otras personas, es una buena opción. Tenemos que **informar a las personas sobre los recursos que tengan más cerca.** Incluso animarlas, ya que a veces cuesta romper con la rutina.

En ocasiones, a estos centros asisten sólo personas mayores. **Relacionarnos con personas de edad y circunstancias similares** está bien, porque nos permite **compartir vivencias e inquietudes comunes**.

Pero también es importante **ampliar las oportunidades**. Abrir “el zoom” y facilitar la relación **con personas de diferentes edades o que viven diversas circunstancias**.

Jóvenes, niños/as, asociaciones, grupos con dificultades de inclusión social (inmigrantes, reclusos/as, personas con discapacidad, etc.) aportan una **mirada complementaria a la vida**. Son momentos que facilitan el intercambio de vivencias y también de encontrar cosas que, sin esperarlo, nos unen.

Este tipo de encuentros suelen ser **oportunidades para organizar actividades** muy potentes que permiten desarrollar diferentes **capacidades personales** e incluso... ¡hacer **nuevas amistades!**

### LAS ACTIVIDADES CON OTROS GRUPOS

- Facilitan el conocimiento mutuo de nuevas realidades y con ello el crecimiento personal.
- Facilitan el intercambio de vivencias.
- Contribuyen a romper estereotipos y eliminar temores.
- Ayudan a ampliar el círculo de contactos y de posibles apoyos.
- Muestran a la comunidad una imagen real de las personas mayores.
- Favorecen el desarrollo de recursos y capacidades personales.

## 4. RELACIONES ÍNTIMAS

Las personas necesitamos **expresar y recibir afecto**. También tenemos **necesidades sexuales**. Es cierto que éstas se manifiestan con diferente intensidad cuando envejecemos, pero es una dimensión que forma parte de la integralidad del ser humano a lo largo de la vida.

La sexualidad en las personas mayores es un tema tabú, del que no se habla. Hay quien todavía cree que el deseo y las necesidades no pueden tener cabida a una edad avanzada, que no son algo normal.

Nada más alejado de la realidad. El deseo sexual permanece, aunque la respuesta sexual y las relaciones puedan ser diferentes.

Lo primero: **entender como algo normal y sano la necesidad de mantener relaciones**



**íntimas** entre las personas mayores. Y después, **dar apoyos** para que éstas puedan vivir sus afectos y su sexualidad plenamente, a su ritmo y a su manera.

### RECONOCER Y RESPETAR LAS NECESIDADES AFECTIVO-SEXUALES

- Normalizar, sensibilizar, formar, aumentar la tolerancia de todos/as (las propias personas mayores, las familias, los/as profesionales) en estos temas.
- Contar con espacios físicos que permitan a las personas mantener relaciones íntimas.
- Guardar discreción y confidencialidad respecto a las relaciones afectivas que mantienen las personas.
- Mantener el respeto. Evitar que las personas puedan sentirse mal o ser ridiculizadas.
- Respetar y normalizar las diferentes orientaciones sexuales.
- Proteger a personas indefensas del abuso por parte de otros/as. Especialmente, a las personas con deterioro cognitivo avanzado.

Un asunto delicado: **la sexualidad en las personas que tienen deterioro cognitivo.**

Tener una **demencia no tiene por qué implicar renunciar al sexo**. Pero claro está, desde la libertad y la aceptación de la persona.

Hemos de **proteger a la persona**, prevenir los abusos, pero **sin quitarle relaciones y apoyos que le generen seguridad y bienestar**.

Por eso, deberemos **valorar muy detenidamente cada persona y su situación**.

### PREVENIR EL ABUSO, BUSCAR LO MEJOR PARA LA PERSONA

- Valorar la competencia de la persona para aceptar las relaciones afectivo-sexuales.
- Observar si la relación causa bienestar o malestar a la persona.
- Conocer la biografía y los valores de vida de la persona con respecto a las relaciones afectivas e íntimas.
- Valorar cómo es la relación con la otra persona. No es lo mismo la relación de una pareja que lleva juntos tiempo, que una pareja nueva. Valorar el trato, lo que la relación aporta y beneficia a la persona.
- Apoyar también a la pareja. Suele ser muy duro para el otro ver que la persona a quien quiere se deteriora.
- Contar con la familia de la persona. Pensar juntos en lo que es mejor para ella.
- Huir de decisiones extremas. Las medidas intermedias y prudentes suelen ser las mejores opciones.
- Prevenir las situaciones de abuso. Proteger a la persona.
- Y si tenemos dudas, consultar con un comité de ética asistencial.

*“Lola y Ramón salen juntos desde hace unos años. Lola entonces ya tenía algunos fallos de memoria, pero se manejaba bastante bien. Desde que su demencia ha avanzando, vive con su hija Victoria. Ramón sigue con ella y, según dice Victoria, ¡que no le falte Ramón! Se quieren, están a gusto, ¡se nota! Y Ramón es capaz de comprender lo que a ella le pasa. Dice que, aunque no están casados, para él Lola*

*es la mujer de su vida. Victoria lo comprende y algunos días los deja solos en su casa para que disfruten juntos”.*

**Milagros, Trabajadora social de servicios sociales municipales**

## 5. CONVIVIR

Promover unas **relaciones cordiales es algo necesario y positivo para todos/as**. Lograr un clima agradable, alegre, sin tensiones, donde sea posible una buena comunicación en los lugares donde convivimos con otras personas **es generar bienestar y salud**. Para todos/as.



**Cuando la persona mayor vive en casa con sus hijos/as u otros miembros de la familia** porque necesita atención y cuidados, puede ocasionar algunas dificultades. El cuidado a un miembro de la familia obliga a cambios en la vida habitual del grupo familiar y es necesario readaptarse. Los/as profesionales que acceden al domicilio, o desde un centro de día, pueden desempeñar un papel de escucha y consejo importante.

### FACILITAR LA CONVIVENCIA DEL GRUPO FAMILIAR EN CASA

- Buscar el equilibrio entre lo que precisa la persona mayor y el resto de las personas que viven con ella.
- Apoyar de una forma especial al/a la cuidador/a principal. Escucharle y ayudarle a ser consciente de que para cuidar bien hay que estar bien, hay que cuidarse.
- Ayudarles a encontrar oportunidades e ideas de hacer cosas juntos, pasándolo bien. Divertirse, reírse ayuda mucho a convivir mejor.
- Si se está valorando la opción de que la persona mayor viva con algún familiar, es importante, antes de tomar la decisión, sopesar las ventajas e inconvenientes de todas las posibles alternativas de cuidado. Saber qué cambios supone para todos el vivir juntos. Llegar a acuerdos y ajustar expectativas.
- Saber cuándo ya no es posible seguir en casa. Buscar entonces la mejor opción. Informarse, conocer centros y alternativas que se ajusten a las necesidades y preferencias de la persona mayor.

En los centros, de día o residenciales, conviven personas distintas que no se conocen. Cuidar la convivencia, **lograr un clima respetuoso, alegre y cálido** es fundamental para que todos/as nos sintamos cómodos/as.

## LO QUE FAVORECE LA CONVIVENCIA EN UN CENTRO

- Las normas precisas. La existencia de muchas normas no ayuda a convivir mejor.
- Las normas de convivencia elaboradas desde la participación y el consenso de las personas mayores, familias y profesionales.
- El ambiente “hogareño”; que el centro produzca “sensación de hogar”, que se funcione de forma parecida a una casa.
- La capacidad de las personas para elegir qué hacer, dónde y con quién estar. La convivencia obligada no suele resultar bien.
- La combinación de espacios de uso privado con espacios compartidos y actividades en grupo.
- Algunos cambios aceptados (de habitación, de actividades, de grupo de convivencia, de lugar en el comedor...), que favorezcan nuevas oportunidades para una mejor convivencia.
- Las actividades que juntan a las personas por aficiones comunes.
- El contacto y la presencia de personas que no viven o acuden diariamente al centro (familias, amistades, vecindad, otros/as profesionales, jóvenes, niños/as). Que haya vida, que no sea un lugar “cerrado”; evitar la sensación de tener que estar siempre viendo las mismas caras.
- La actitud cordial, agradable, positiva, relajada de los/as profesionales. Los/as profesionales son quienes en mayor parte moldean el ambiente de un centro.
- Los momentos donde surge el humor. Las risas compartidas suscitan complicidad. Unen a las personas.



*“Revisamos las normas de convivencia. Para ello hicimos grupos de debate donde participaron las personas mayores, algunas familias y los profesionales. Queríamos tener un “centro amigo de nuestros amigos”. Ahora tenemos menos normas, pero son las importantes y las que entre todos hemos decidido. Una de las que hemos eliminado es el horario de visitas”.*

**Joaquín (Director de residencia)**

## PARA SABER MÁS

- **GUISET, M.J. (2008).** “**Cuidados y apoyo a personas con demencia: nuevo escenario**”. Boletín sobre envejecimiento Perfiles y tendencias 34 (septiembre). Madrid: IMSERSO.  
<http://www.imserso.es/InterPresent2/groups/imserso/documents/binario/boletinopm34.pdf>
- **MARTÍNEZ, T. (2011).** “**La atención gerontológica centrada en la persona**”. Vitoria-Gasteiz: Departamento Empleo y Asuntos Sociales. Gobierno Vasco.  
[http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contss/es/contenidos/informacion/publicaciones\\_ss/es\\_publica/adjuntos/Atencion%20Gerontologica.pdf](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contss/es/contenidos/informacion/publicaciones_ss/es_publica/adjuntos/Atencion%20Gerontologica.pdf)
- **VV.AA. (2009).** “**Guías de Buenas Prácticas en Centros de atención a personas mayores en situación de dependencia**”. Oviedo: Consejería de Bienestar Social y Vivienda del Principado de Asturias.  
[http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF\\_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/1.2\\_Residencias%20Mayores-Parte%20II.pdf](http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/1.2_Residencias%20Mayores-Parte%20II.pdf)  
[http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF\\_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/2.2\\_Centros%20dia-Parte%20II.pdf](http://www.asturias.es/Asturias/descargas/PDF_TEMAS/Asuntos%20Sociales/Calidad/2.2_Centros%20dia-Parte%20II.pdf)
- **VV.AA. (2010).** “**Mujeres, las oportunidades de la edad**”. Madrid: IMSERSO.  
<http://www.acpgerontologia.com/documentacion/lasoportunidadesdelaedad.pdf>
- **VV.AA.** “**Saber envejecer, prevenir la dependencia**”. SEGG y Obra Social Caja Madrid. Madrid: Sociedad Española Geriatría y Gerontología y Obra Social Caja Madrid.  
[http://www.obrasocialcajamadrid.es/es/accion\\_social/atencion\\_a\\_mayores/saber\\_envejecer\\_prevenir\\_la\\_dependencia/documentacion.html](http://www.obrasocialcajamadrid.es/es/accion_social/atencion_a_mayores/saber_envejecer_prevenir_la_dependencia/documentacion.html)



# Modelo de atención centrada en la persona

## Cuadernos prácticos

1. La atención centrada en la persona. ¿En qué consiste este modelo de atención?
2. La atención centrada en la persona. ¿Cómo llevarla a la práctica?
3. Cómo y dónde quiero que me cuiden. La atención centrada en la persona, un nuevo modelo de atención
4. Profesionales. Nuevos roles y equipos de atención
5. Profesional de referencia en centros
6. Unidades de convivencia para personas que necesitan ayuda
7. Conocer a la persona y apoyar su autodeterminación. El plan de atención y vida
8. Conocer a la persona y apoyar su autodeterminación. El grupo de apoyo y consenso
9. Vida cotidiana. Realizar actividades
10. Vida cotidiana. Las relaciones con los demás
11. Vida cotidiana. Los cuidados personales

AtenciónCentradaPersona